IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Ikaztegietako Udaleko zerbitzu anitzetako bi plaza betetzeko hautaketa-prozesua.

Euskara azterketaren behi betiko emaitzak.

Hirugarren ariketarako deialdia.

BIGARREN ARIKETA: BEHIN BETIKO EMAITZAK

2026ko urriaren 7an argitaratu ziren bigarren ariketaren emaitzak udaleko iragarki taulan eta web orrian (www.ikaztegieta.eus).

Behin-behineko emaitza horien aurka aurkeztutako erreklamazioak kontuan izanik, ariketak berraztertu dira eta emaitzak ez dira aldatu, beraz, urriaren 7ko emaitzak behin-betikoak dira.

Berrazterketan, oinarri izan dira hizkuntza eskakizunen azterketetan aplikatu behar diren irizpideak. Irizpideak helbide honetan daude kontsultagai: Ebaluazio-irizpideak - Hizkuntza-eskakizunak - IVAP

HIRUGARREN ARIKETARAKO DEIALDIA

Hirugarren ariketa: ariketa praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Ariketa hau gehienez 40 punturekin baloratuko da. Gainditzeko, gutxienez 20 puntu beharko dira.

EGUNA: 2026ko azaroaren 26

ORDUA: 14:00

LEKUA: Goierri Eskolako 3. eraikinaren sarreran (Arranomendia-2, K.P. 20240, Ordizia).

Ariketa praktikoa izango da, beraz, hautagaiek kotoizko laneko arropa (sukoia ez dena), segurtasun-botak (ISO 20345), segurtasun-betaurrekoak (EN 166) eta eskularruak (EN 388) ekarri beharko dituzte.

Laneko arropa ez bada egokia edo segurtasun-botarik, betaurrekorik edota eskularrurik ekartzen ez duen izangaiak ez du aukerarik izango azterketa egiteko.

Epaimahaiko Idazkaria

Ikaztegieta, 2026ko urriaren 26a